

## GOBERNU BATZARRA

2014. 10.31

<b>Alkatea:</b>	<b>Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko urriaren 31n, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko:</b>
<b>Ibai Iriarte San Vicente</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Lore Agirre Zipitria Rosa M. Urkola Irigoien Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.</b>	<b>1.- Aurreko akta onartzea. 2.- 2014/1440 Alkate dekretua berrestea. 3.- BOX.A arte elkarteari utzitako lokalaren anpliazioa.</b>
<b>Beh. Beh. Idazkaria:</b>	<b>4.-Tolosako Etxebizitza hutsak merkatu- ratzeko egitasmoa. Etxebizitzen alokairua esleitzeko irizpideak eta prozedura.</b>
<b>Karmele Contreras Goikoetxea.</b>	
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	<b>5.-Santa Lutzia auzoan mintegi bat egiteko obraren esleipena/ Adjudicación de obras para creación de un vivero agrícola en Santa Lutzia auzoa de Tolosa.</b>
<b>Paulino Alonso Eraso.</b>	<b>6.-33/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.</b>

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko urriaren 24an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- 2014/1440 Alkate dekretua berrestea.**

T.R.i diru laguntza familiei izeneko partidatik Emaus Zentroari 150€-ko faktura ordainduko zaio 2014/1440 Alkate dekretuaren bidez.

Hau kontutan izanik, Gobernu Batzarreko kideak beretsi egin dute, aho batez, 2014/1440 dekretua.

### 3.- BOX.A arte elkarteari utzitako lokalaren anpliazioa.

**BOX.A** arte elkarteak 2011garren urteko ekainaren 2an sinatu zuen Tolosako udalarekin lokala uzteko hitzarmena. Lokala San Esteban auzoan dago, Udal brigadaren egoitzaren aldamenean.

Hiru urteko ibilbidearen ondoren, hasierako asmoak betetzeko behar berriak sortu zaizkio elkarteari, beste artistekin esperientziak konpartitzeko.

Honetaz gainera, bitarte honetan udalak beste lokal bat jarri zuen **BOX.A**aren esku, eraikin bereko beheko solairuan bere beharrei modu zabalago batean erantzun ahal izateko eta publikoari zabalik egongo litzatekeen areto bat sortzeko.

Erantsi beharreko azalera espedientean dauden planoetan ikusten da. Bertan egingo litzateke espazioa artisten elkarte-gune antzera.

Azalera handitze honek, 2011ko kontratua berritu beharra dakar. Kontratu berri hau beste lau urte berritarako izango litzateke.

Kontuan izanik, 2011garren urtean lokala utzi zitzaionetik **BOX.A** elkarteak eman dion erabilera egokia izen dela, helburuak bete direla eta beraiantzat nahiz Tolosako herriarentzat anpliazioa aberasgarria izango litzatekeela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Azaldutakoarekin aurrera egitea eta horretarako aurtengo azaroaren 7an kontratu berria sinatzea **BOX.A** arte elkartearekin, prekario izaeraz, eta gehienez 4 urterako.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura departamentuari eta **BOX.A** arte elkarteari.

### 4.- Tolosako Etxebizitza hutsak merkaturatzeko egitasmoa. Etxebizitzen alokairua esleitzeko irizpideak eta prozedura.

2014ko maiatzaren 23an, Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak Tolosako etxebizitza hutsak merkaturatzeko diru-laguntzen oinarriak onartu zituen.

Oinarri hauen xedea, Tolosan dauden etxebizitza hutsak alokairuaren bidez edo erabiltzeko lagapenaren bidez merkatuan jartzeko 2014an izango diren sustapen-neurriak arautzea da.

Horiek horrela, 2014ko urriaren 3an egitasmo honetan parte hartzeko epea amaitu da, eta hainbat etxebizitzek programan parte hartuko dutelarik.

Bestalde, hutsik dauden etxebizitza hauen alokairua esleitzeko, 2014ko urriaren 3a bitartean, [Tolosako Udalaren errentamendu araubideko etxebizitza babestuak, zuzkidura](#)

[bizitokiak eta parekatutako etxebizitzaren erregistroan](#) altan emanda dauden 81 eskaera aztertuko dira.

Etxebizitza hauen esleipenerako erregistroan alta emanda eta baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean zozketa egingo da, hurrenkeraz, esleipenerako zerrenda bat osatzeko.

Ondoren, bizikidetza unitate kide kopuruaren arabera eta alokairurako utzi diren etxebizitzaren logela kopuruaren baitan ezarritako irizpideak jarraituta, zerrendako ordena jarraituta, esleipenerako eskaintza egingo zaie eskatzaileei.

Irizpideak hauek izango lirateke:

**3 LOGELATAKO** etxebizitzaren esleipenerako:

- Lehentasuna izango dute 4 kidez edo gehiagoz osatutako bizikidetza unitateek.
- Ondoren, 3 kidez osatutako bizikidetza unitateei egingo zaie eskaintza.
- Jarraian, bikoteei
- Eta azkenik banakako eskatzaileei.

**2 LOGELATAKO** etxebizitzaren esleipenerako etxebizitzaren azalera erabilgarria ere kontutan hartuko da, horrela:

**Bi logelatako etxebizitzak 60 metro erabilgarri baino gehiago baditu:**

5. Lehentasuna izango dute 3 kideko bizikidetza unitateek.
6. Ondoren bi kidez osatutako bizikideza unitateek
7. Azkenik, kide bakarrekoek.

**Bi logelatako etxebizitzak 60 metro erabilgarri baino gutxiago baditu:**

1. Lehentasuna bi kidek osatutako bizikidetza unitateek.
2. Ondoren kide bakarreko bizikidetza unitateak.

Horiek horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENENA.**- Tolosako Etxebizitza hutsak merkaturatzeko programan parte hartu duten etxebizitzak esleitzeko, Tolosako Udalaren errentamendu araubideko etxebizitza babestuak, zuzkidura bizitokiak eta parekatutako etxebizitzaren erregistroan altan emanda dauden eskatzaileen artean zozketa egitea, eta ondoren, proposatzen diren irizpideen arabera esleipenak egitea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Etxebizitza zerbitzura.

## **5.- Santa Lutzia auzoan mintegi bat egiteko obraren esleipena/ Adjudicación de obras para creación de un vivero agrícola en Santa Lutzia auzoa de Tolosa.**

2014ko irailaren 19an egindako bilkuran, Udal Gobernu Batzarrak klausula administratiboen agiria eta espedientea onartu zituen, publizatetik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, Tolosako "Santa Lutzia auzoan mintegi bat egiteko".

Eskaiantzat aurkezteko epearen barruan, honako proposamena hauek aurkeztu ziren:

- 1.- Urkaz Eraikuntzak, S.L.
- 2.- Const. Vda. de Garmendia, S.L..
- 3.- Otegi Eraikuntzak, S.L..
- 4.- Construcciones Echaide, S.A.
- 5.- Contrucciones Uzturpe, S.L.
- 6.- Construcciones Fco. Aierbe, S.L.
- 7.- Construcciones Lopetegi Anaiak, S.L.

Udal teknikariak, 2014ko urriaren 14an egindako txostenean dio Construcciones Uzturpe, S.L., enpresak eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.-k aurkeztutako proposamenak lizitazioz kanpo geratzen direla oinarrizko aurrekontua baino handiagoak diren proposamen ekonomikoak eskaintzeagatik. Gainontzeko proposamen guztiak aztertuta, Otegi Eraikuntzak, S.L., enpresak aurkeztutakoa izan dela proposamen merkeena, eta udalarentzak ekonomikoki onuragarriena.

Gauzak horrela, urriaren 14ko 2014/1390 dekretuaren bitartez, Otegi Eraikuntzak, S.L., enpresari zenbait dokumentu aurkezteko errekerimendua egin zitzaion.

2014ko urriaren 28an, Otegi Eraikuntzak, S.L., enpresak aurkeztu

La Junta de Gobierno Local, el 19 de septiembre de 2014, aprobó el expediente y los pliegos de cláusulas administrativas para la contratación, por el procedimiento negociado sin publicidad, de las obras de "Creación de un vivero agrícola en Santa Lutzia auzoa" de Tolosa.

Durante el plazo de presentación de ofertas, se presentaron las siguientes proposiciones:

- 1.- Urkaz Eraikuntzak, S.L.
- 2.- Const. Vda. de Garmendia, S.L..
- 3.- Otegi Eraikuntzak, S.L..
- 4.- Construcciones Echaide, S.A.
- 5.- Contrucciones Uzturpe, S.L.
- 6.- Construcciones Fco. Aierbe, S.L.
- 7.- Construcciones Lopetegi Anaiak, S.L.

Mediante informe técnico, de fecha 14 de octubre de 2.014, el técnico municipal manifiesta que las propuestas económicas presentadas por Construcciones Uzturpe, S.L., y Construcciones Francisco Aierbe, S.L., exceden el presupuesto base de licitación, por tanto quedan fuera del procedimiento de licitación. Examinadas el resto de las propuestas, la presentada por Otegi Eraikuntzak, S.L., se considera económicamente la más ventajosa y por tanto, la más beneficiosa para el Ayuntamiento.

En base a ello, mediante decreto 2014/1390 de 14 de octubre se requiere a otegi Eraikuntzak, S.L., a que presente determinada documentación.

El 28 de octubre de 2014 la empresa Otegi Eraikuntzak, S.L., presenta la

du aipatutako dokumentazioa.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Ez onartzea adjudikazioa prozeduran "Construcciones Uzturpe, S.L., eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.," enpresak aurkeztutako eskaintzak, oinarritzko aurrekontua baino haundiagoak direlako.

**BIGARRENA.**- Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta Otegi Eraikuntzak, S.L., enpresari adjudikatzea Tolosako "Santa Lutzia auzoan mintegi bat egiteko" obraren kontratua, hurrengo era honetan:

\*Prezioa: 44.407,54 (BEZa barne)

\*Exekuzio epea: 8 aste.

Aipatu adjudikazioaren oinarri udal teknikariaren txostenean jarritako arrazoiak izan dira, hauexek, laburbilduta:

### **ENPRESAREN IZENA**

- 1.- Otegi Eraikuntzak, S.L.
- 2.- Construcciones Echaide, S.A.
- 3.- Urkaz Eraikuntzak, S.L.
- 4.- Construcciones Lopetegi Anaiak, S.L.
- 5.- Construcciones Vda. de Garmendia, S.L.

**HIRUGARRENA.**- Aurkeztu diren lizitzaile guztiei adjudikazio jakinaraztea,

**LAUGARRENA.**- Kontratua formalizatzeko hamabost baliodun eguneko epea jartzea, lizitzaileei adjudikazio

documentación referida.

A la vista de cuanto antecede, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por el alcaldía,

### **ACUERDA**

**PRIMERO.**- No admitir las ofertas presentadas por "Construcciones Uzturpe, S.L. y "Construcciones Francisco Aierbe, S.L." porque exceden el presupuesto base de licitación.

**SEGUNDO.**- Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a Otegi Eraikuntzak, S.L., el contrato de obras para "Creación de un vivero agrícola en Santa Lutzia auzoa" de Tolosa, en los siguientes términos:

\* Precio: 44.407,54 euros (IVA incluido).

\* Plazo de ejecución: 8 semanas.

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en el informe emitido por el técnico municipal, y que se resume de la siguiente manera:

### **PROPUESTA ECONOMICA**

44.407,54 € (BEZa barne)
46.622,17 € (BEZa barne)
47.801,81 € (BEZa barne)
48.133,11 € (BEZa barne)
49.684,73€ (BEZa barne)

**TERCERO.**- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a todos los licitadores.

**CUARTO.**- Establecer que el contrato se formalizará dentro de los quince días hábiles desde la notificación de la

hau jakinarazi den egunetik hasita.

adjudicación a los licitadores.

**BOSGARRENA.-** Kontratuaren formalizazioa profileen argitaratzea, adjudikaziotik berroteita zortzi eguneko epearen barruan.

**QUINTO.-** Publicar la formalización del contrato en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de la adjudicación.

#### **6.- 33/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **33/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **242.281,17 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** **33/2014** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:**

#### **Tolosa C.F.ri diru laguntza futbol zelaiaren zaintzarako.**

Bi mila hamalauko otsailaren 17ko Berazubiko kudeaketa batzordean erabaki zen TCF-ri futbol zelaiaren mantenuaren diru laguntzaren kalkuloa egiteko formula. Horren arabera, lehenengo likidazioa, 2014ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egingo litzateke eta hortik aurrera, gainontzeko likidazioak hamabi hilabetekoak izango lirateke, urriaren 1etik, irailaren 30 bitartekoak hain zuzen ere, 2050 arte.

Aurrekari horiek bistan, aurtengo diru laguntza kalkulatzera, xehetasun hauek kontutan hartuz egingo da:

Hitzarmenean sinatutako konpromisua: 17.500 €, 12 hilabeteko mantenu eta zaintza lanengatik (17.500/12).

Hasieran aipatu bezala, lehenengo likidazio hau, 2014ko bederatzihilabetei dagokiona izango da, urtarriletik irailera, biak barne, hau da, 13.125€-koa.

TCF-k urtariletik ekainera (kontadoreen banaketa egin bitartean) ordaindutako argi indarra 2.812,27€-koa izan da. Udalak, bere gain, kopuru horren %70 hartzen duenez, aurtengo likidazioan 1.968,59 € erantsiko dizkio TCF-eko diru laguntzari.

Aipatutako guztia kontuan izanik eta kirol teknikariak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- TCF-ek bi mila hamalauan, futbol zelaia zaintzagatik 15.093,59 €-ko diru laguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, kirol departamentuari eta TCF-ri.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:00etan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**